

# USURBILGO UDALEAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027



SARRERA.....	2
VII. PLANGINTZALDIA (2023-2027). Usurbilgo UDALA.....	3
Plan estrategikoaren egitura.....	3
Laburpena.....	4
Erronkak.....	4
Helburu Estrategikoak.....	5
UDALAREN DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK.....	6
1-Ardatza: KUDEAKETA.....	6
2. Ardatza: ERABILERA.....	17
2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA.....	18
2.2 LAN-HIZKUNTZA.....	22
2026-2027 KUDEAKETA PLANA.....	32
ERANSKINAK	
I Eranskina: Hizkuntza irizpideak	
II Eranskina: Adierazleen aginte panela	
III. Eranskina: Lanpostu zerrenda	

Txosten honetan jaso dugu Usurbilgo Udalaren Euskara Normalizatzeko Plana. Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen udalean eta hobetzeko zer pauso eman behar diren. Planean, UEMAREN hizkuntza irizpideak jasotzen dira, haiek izango baitira erreferentzia ibilbide guztian, baita UEMAREN irizpideak betetzeari begira udalak bere jardunerako onartutako hizkuntza irizpide xehatuak ere. 2023-2027 artean izango du balioa planak, eta urtez urte kudeaketa plan bat egingo zaio, bost urteko ikuspegi estrategikoaren baitan urtez urteko helburuak, arduradunak, epeak, neurriak eta baliabideak zehaztuta. UEMAK eta udalak elkarlanean egindako plana da hau, eta horretarako udal langileen eta ordezkarien parte-hartzea izan du. Udal langile eta ordezkari guztiei zuzendutako plana da; beraz, plana udalbatzak onartutakoan, denek bete beharko dituzte bertan jasotzen diren irizpideak.

## **Usurbilgo Udala UEMAKo kide**

Etorkizuneko Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den erakunde publikoa da Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Euskal Herriko mutur batean zein bestean sakabanatuta egon arren, eta neurritz ere denak berdinak ez izan arren, elkarren artean antzekotasun handiak dituzten herriz osatuta dago: berezko hizkuntzak batzen ditu. UEMAKo udalerrietan, lurgune euskalduneko herriak izaki, biztanleen %70ak baino gehiagok daki euskaraz.

1991. urtean, 17 udalek eratu zuten mankomunitatea, eta gaur egun lurgune euskaldunetako 107 udalerririk osatzen dute. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako udalak biltzen dituen mankomunitate bakarra da.

Horrenbestez, herritarrek arlo guztietan euskaraz bizitzea posible izateko lan egiten du mankomunitateak. Euskara nagusi den lurgunea erabat euskalduntzeaz gain, lurgune euskalduna zabaltzea bultzatu nahi du UEMAK.

Euskal Herriaren berezko hizkuntza sustatzeko asmoz, udala partaide den Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), berriz, bere jardunbidea arautzen duten estatutuetan dio bere helburu orokorra dela, besteak beste, udal partaideen administrazioetako barne jardueran eta udalerrietako arlo guztietan euskararen erabilera ahalbideratzea eta bermatzea.

Usurbilgo Udala UEMAKo kide da, eta lankidetzan jardun du UEMAREkin, bai udal administrazioa euskalduntzeko bidean, bai herrira begirako hainbat jardueratan.

**Usurbilgo Udala 2023-2027 plan estrategikoa**

**Bisioa**

Udalan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza bai lan hizkuntza modura, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko


**Derrigorrez bete beharreko indizea**

19/2024ko Dekretuaren 25. Artikuluan derrigorrezko eskakizunen indizea ezartzen da (euskdunak +(ia-euskdunak/2)). Usurbilgo Udalarik 2021eko erroldako datuen arabera % 76,98 dagokio

**Euskarazko administrazio unitatea**

19/2024 dekretuan zehaztutakoaren arabera plan estrategikoan, entitateak euskarazko administrazio-unitateak izendatu ahal izango ditu, beren eginkizunak nagusiki euskaraz beteko dituztenak. Euskarazko administrazio-unitateak dira lanpostuen %80an gutxienez lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-eskakizuna edo goragokoa egiaztatuta dutenak, arduraduna barne. Usurbilgo Udal osoa izango da euskarazko administrazio unitatea.

**PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA**



## • PLAN ESTRATEGIKOAREN LABURPENA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
65,50	655,50	89,20	891,83	23,70	236,33

### • KUDEAKETARAKO ERRONKAK

**Egitura egokia antolatzea udalaren kudeaketa orokorrean txertatuta.**

**Jarraipen sistematikoa egitea.**

**Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.**

**Arduradun politikoaren zein langileen lidergotza sustatzea.**

### • ERABILERARAKO ERRONKAK

**Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea.**

**Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu-hizkuntza.**

## Helburu Estrategikoak

<b>KUDEAKETA</b>		EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabilera Plana errotu eta jarraipen-sistema egituratu.</li> <li>- Hizkuntza irizpideak onartu eta betearazi.</li> <li>- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantza onartu.</li> </ul>
		LIDERGOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Udal ordezkari eta arduradun teknikoek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.</li> <li>-Udal ordezkari eta arduradun teknikoek hizkuntza irizpideak zein diren argi izatea eta haiek betetzea.</li> <li>-Udal ordezkari eta arduradun teknikoak herritarrentzat eta langileentzat eredugarri izatea.</li> </ul>
		LANGILEAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileek zalantzak eta kezak partekatzeko foro edo talde eragilea sortu.</li> <li>- Erabilera Planeko edukiak zabaldu eta kudeaketa planeko helburuak behar bezala helarazi.</li> <li>- Hizkuntz-irizpideen jarraipena hobetzeko sistema sortu.</li> </ul>
		GAITASUNA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntz eskakizunen betetze-maila % 100 izan dadin eginahalak egin.</li> <li>- Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko daukaten langileei erraztasunak eman maila hobetzeko.</li> <li>-Hautaprotetan, derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuetan, probetako bat gutxienez euskaraz eginarazi.</li> <li>- Ordezkari politikoak euskaldunak izan daitezen sustatu, eta gaitasunik ez duenari laguntza eskaini.</li> </ul>
		HIZKUNTZA-KLAUSULAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontratu, dirulaguntza, baimen zein hitzarmenetako ereduak zehaztu.</li> <li>- Jarraipen-sistema sortu, eta ardurak banatu.</li> <li>- Beste administrazio eta erakundeekin elkarlana indartu, eragin biderkatzailea areagotzeko.</li> </ul>
<b>ERABILERA</b>	<b>ZERBITZU</b>	IRUDIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Irudiaren elementu guztietan euskarari lehentasuna emateko pausoak ematen jarraitu.</li> <li>-Irudiaren elementu guztietan euskara hutsezko eredia lehenetsi.</li> </ul>
		HERRITARREKIKO HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adostutako hizkuntz irizpideak bete.</li> <li>- Langile eta udal ordezkarien inplikazioa eta jarrera proaktiboa sustatu idatziz zein ahoz euskara berma dadin.</li> </ul>
	<b>LAN HIZKUNTZA</b>	BARNE-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Irizpideak zehaztu, langileen betebeharrak finkatu, eta horien aldeko jarrera sustatu.</li> <li>- Administrazio prozedura guztiak euskaraz abia daitezen baliabideak eskaini.</li> </ul>
		KANPO-HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezarritako hizkuntz irizpideak bete.</li> <li>- Euskaraz ere aritu beharko lukeen erakundeak Udalarekin hala egiteko baliabideak jar ditzan protokoloa zehaztu.</li> <li>-Erakundeen arteko harremanetan euskaraz gero eta protagonismo handiagoa izan dezan eragin.</li> </ul>
		PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileek formazioa euskaraz jaso dezaten eragin.</li> <li>- Langileek prestakuntza euskaraz jasotzeko hautua egin dezaten sustatu.</li> </ul>
		BALIABIDE INFORMATIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-tresna guztien euskarazko bertsioak eskuratu.</li> <li>- Aplikazioen euskara-kalitatea bermatu.</li> <li>- Baliabide informatikoen bidez sortutako inprimaki, agiri edo dokumentuek hizkuntz irizpideak betetzeko neurriak hartu.</li> </ul>
		SORTZE-HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Langileek nagusiki euskara hutsean lan egiten segi dezaten baliabide osagarrien inguruko laguntza eman.</li> </ul>

# UDALAREN DIAGNOSTIKOA ETA HELBURUAK

## 1-ARDATZA: KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
75	224,99	76,98	230,93	1,98	5,94

### • KUDEAKETARAKO ERRONKAK

**-Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean zein hizkuntz irizpideetan jasotakoak udal jardun osoan integratu.**

**-Jarraipen-sistema adostu, eta zehar-lerrotasunez aritu, udal teknikari eta ordezkariak partaide eginda.**

**-Lidergotzan eragin, Udala erreferente bilakatuta.**

**-Planaren edukiak ezagutarazi eta haiek berritu edo aldatzeko ekarpenak egiteko aukerak eman.**

### 1.0.1 arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
75	45	100	60,00	25	15

### • Egoera

Usurbilgo Udalak plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua du. Erabilera Plana da, Euskararen Udal Ordenantzarekin batera, Udalaren hizkuntza politikaren ardatza. Haren jakitun dira udal langileak, eta baita, neurri zabalagoan, herritarrek ere. Aspaldikoa du Udalak hizkuntzaren normalkuntzan eragiteko ekimena. Are gehiago, UEMAren aurreneko kideetako da.

Erabilera Plana urtez urteko kudeaketa planaren bidez osatzen da. Jarraipen batzordeak (euskara teknikaria eta zinegotzia, eta UEMAko teknikaria) diagnostikoa egin eta helburuak finkatzen ditu. Haien berri alkatetzari ematen zaio.

Zeregin hauek bideratzen ditu Jarraipen batzordeak:

- Talde eragilea da, eta urtez urteko kudeaketa planak diseinatu eta garatzen ditu, sail bakoitzari helburu zehatzak jarrita.
- Lau hilean behin elkartzen da, gutxi gorabehera, eta hurrengo aldirako zereginak zehazten ditu bilera bakoitzean. Urte bukaeran, kudeaketa planak baloratzen ditu.
- Ardurak banatzen dira, kudeaketa planeko helburuei begirako konpromisoak/neurriak betetzeko.
- Konpromiso/neurri bakoitza betetzeko edo/eta betearazteko ardurak eta epeak izendatzen ditu.
- Jarraipen batzorde batetik bestera banatutako lanak eta ardurak bete diren baloratzen du, eta, behar izanez gero, egokitzapenak egiten ditu.
- Udalbatzari edo Gobernu Batzordeari jakinarazten dio zer neurri edo erabaki hartuko diren.

- **Egindakoak**

Udalak Erabilera Plana errotzeko bidea zabaldu du. HAPOn ELE egin du, eta 2/2016 Legeak, Tokiko erakundeen araubidea arautzen duenak, zehazten dituen eskumenak baliatuta euskara lan eta zerbitzu hizkuntza gisa sendotzeko ahaleginak egiteaz gain, hizkuntzaren ezagutza eta erabilera zabaltzeko egitasmoak jarri ditu abian.

- **Indarguneak**

Hizkuntz kontzientzia berezkoa du Udalak. Udal Gobernuak zein langileek egiten dute euren hizkuntzaren normalkuntzan eragiteko mandatua.

Udalaren eginahalek maila guztietan dute eragina. Hizkuntz eskubideak berma daitezen urraketak salatzen ditu bai UEMAren bidez zein Behatokiaren bidez. Horrez gain, euskara sustatzeko ekimen ugari jartzen ditu martxan, hala nola, euskara ikasteko dirulaguntzak, euskarazko kultur ekintzak,... Euskararen aldeko egitasmoak ere sostengatzen ditu, esaterako, ikastolen aldeko egunak.

UEU-Jakin eta Elhuyar Fundazioarekin hitzarmenak ditu, euskara, zientzia eta ezagutza eskutik sustatu eta elikatzeko. Bestalde, herriko euskalgintzako eragileekin ere (Udarregi Ikastola, Usurbilgo AEK, Noaua!...) elkarlanean aritzen da udala.

Euskara errotzeko ekimenak ere martxan jarria da 2021 urteaz geroztik, eta, hala, jubilatuentzako ikastaroak

ez ezik, hitanoa sustatzekoak, etorri berrientzakoak edota haur eta nerabeek euskara maila hobe dezaten saio osagarriak antolatu ditu.

Aurrera begirako erronken artean, Erabilera Planak dituen hutsuneak konpondu (esparru gehiago aintzat hartuko dituzten hizkuntza irizpideak ezartzea, adibidez), eta herrira iritsi berrientzako harrera protokoloan euskara txertatzea ditu jomugan.

Azkenik, dagokien hizkuntz eskakizuna duten langileak izatea bermatzeko ahalegin berezia egiten da. Zenbaitetan zailtasunak izaten dira ezarritako maila duen inor lortzeko, baina eginahalak egiten ari da oinarrietan epeak edo konpromisoak txertatzeko (kirol teknikari lanposturakoan, esaterako).

- **Zer hobetuak**

Erabilera Planak baditu hutsuneak, batez ere hizkuntz irizpideei dagokienez. Irizpideak bateratu eta Udalak gidalerro bakar eta argiak behar ditu.

Horrez gain, batez ere egoera soziolinguistikoa kolpetik baldintza dezaketen kanpo eraginen aurrean sendotasuna emango dioten baliabide gehiago behar ditu, desengorkotasun juridikoak hainbat neurri ezbaian jarri baititu. EL Eren ordenantza onartzea izan liteke aurrerapausoetako bat.

Ezarritako arau eta jarraibideen jarraipena hobetu behar da: datu-bilketa, hizkuntzaren aldagaia esparru guztietan aintzat hartu, segimendu sistematizatu eta integraturako irizpideak ezarri...

- **Helburu estrategikoak**

**-Erabilera Plana errotu eta jarraipen-sistema egituratu.**

**-Hizkuntza irizpideak onartu eta betearazi.**

**-Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantza onartu.**

- **Adierazle mailako helburuak**

### **1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du**

Jarraipen batzordearen eragina areagotu, Erabilera Plana integratu eta kudeaketa-planak sail guztien lan sisteman txertatu.

<b>Hasierako egoera</b>	<b>Aurreikuspena</b>	<b>Aldea</b>
75	18	100
	24	25
		6

**1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.**

Jarraipen batzordearen erreferentzialtasuna areagotu, sailen datu-emaria hobetzeko markoa ezarri, eta jarraipena sistematizatzeko baliabideak sortu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
75	27	100	36	25	9

**1.0.1.3 Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN)**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
75	0	100	0	25	0

**1.0.2 arloa. LIDERGOA**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
86	64,50	93,5	70,13	7,5	5,63

- Egoera**

Arduradun politiko eta teknikoek euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izan dadin eginahalak egiten dituzte. Konpromisoa euren sentitzen dute, eta Udalak normalkuntzan duen erreferentzialtasuna ondare dela jakitun dira. Hala, arreta berezia jartzen diote baita eremu teknikoenetan ere: hirigintza, idazkaritza.. Esparru

horietan -denetan, berez- lege-markoak ahalbidetzen duen neurrian, urratsak ematen dituzte euskararen normalizazioan eragiteko.

- **Egindakoak**

Euskara zinegotziak, euskara teknikariak eta UEMAko hizkuntz normalizatzaileak osatzen duten jarraipen batzordeak kudeaketa planaren jarraipena egin dute.

- **Indarguneak**

Udalak euskararen aldeko apustu nabarmena egiten du. Udal ordezkariak zein langileek bat egiten dute herritarren mandatuarekin, eta hizkuntz kontzientzia bizi da, oro har. Hala, Planaren edukia bera argi ez dagoenean ere arretaz aztertzen dira irizpideak.

Udal ordezkari guztiak dira euskaldunak.

- **Zer hobetuak**

Erabilera Planaren edukiak argi jaso behar dira, langile guztiek erreferentzia garbiak izan ditzaten.

- **Helburu estrategikoak**

**-Udal ordezkari eta arduradunek euskararen normalizazioan jarrera proaktiboa izatea.**

**-Udal ordezkari eta arduradunek hizkuntza irizpideak ezagutzea eta betetzea.**

**-Udal ordezkari eta arduradunak herritarrentzat eta langileentzat ereduigarri izatea.**

- **Adierazle mailako helburuak**

**1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa planen discinuan, garapenean eta jarraipenean.**

Arduradun politiko eta teknikoek inplikazioa areagotzea.

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
83	21,79	90
	23,63	7
		1,84

**1.0.2.5 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.**

Plan Estrategikoaren eta kudeaketa-planen diseinuan ez ezik, haren jarraipena egiterakoan alde guztien ekarpenak jasotzea. inplikatzeari buruzko	<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
	100	26,25	100	26,25	0	0

### 1.0.2.6 Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.

Adierazleak erraz eta argi jaso ahal izateko tresna sortu, eta arduradunen lan-jardunean integratu.

<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
75	16,87	90	20,25	15	3,37

## 1.0.3 arloa. LANGILEAK

<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>
83	51,22	78	59,32	5	8,1

- Egoera**

Langileek argi dituzte irizpide orokorrak, baina zenbaitetan zehaztasunak falta izaten dituzte.

- Egindakoak**

Langileak kontratatzerakoan beti ezartzen zaie dagokien lanpostuaren hizkuntza eskakizuna. Ezinbesteko baldintza da euskara.

Lanean hasita, harrera egitean, udaleko zerbitzu eta lan hizkuntza euskara dela adierazten zaio langile berriari, eta hizkuntza irizpideen inguruko eskuorria emateaz gain, azaldu egiten zaio. Udal langileek hizkuntzaren normalkuntzan duten eragina azaldu eta motibazioa sortzen saiatzea da helburua.

Aurkezpenean, herriko datu soziolinguistikoaren eta arnaguneen eragoeraren berri ere ematen zaio, eta

"zergatik egiten dugu euskaraz?" galderari argudioekin erantzuteko baliabideak eskaintzen zaizkie.

Lanpostuen zerrenda urtero berritzen da, eta bertan jasotzen da langileen hizkuntz eskakizunen berri.

Horrez gain, denei eskaintzen zaie euskara ikastaroak egiteko aukera, eta baita hizkuntz eskakizunak egiaztatzekeo azterketak egiteko ere.

- **Indarguneak**

Langileek argi dute komunikazio oro gutxienez euskaraz egin behar dela, bai barne- eta bai kanpo-jardunean. Langile berriak hasten direnean hizkuntza politikaren berri emateko harrera saioa egiten da haiekin.

Langileek euskararen aldeko kontzientzia dute eta begi onez ikusten dute Udalak erabilera areagotu eta hizkuntza sendotzeko egiten duen ahalegina.

- **Zer hobetuak**

Zenbait egoeretan nola jokatu argitu behar da. Klausulak edo baimenak tartean izanik ere, euskara bermatzen ez denean zer egin behar den ez dute jakiten langileek.

Hizkuntza politika present izateko zein egindako aldaketa oro komunikatzeko bitartekoak sortu, hizkuntzaren inguruko kontzientzia etengabe landu dadin.

Langileek sarritan inertziaz jokatzen dute; ondorioz, sailaren arabera irizpideak ez dira % 100 berberak izaten. Kohesio- eta koherentzia-saioa egin beharra dago.

Erdal komunitatearengana heltzeko moduak aztertu, betiere elebitasunean murgiltzea saihestuta.

- **Helburu estrategikoak**

- Langileek zalantzak eta kezak partekatzeko foro edo talde eragilea sortu.
- Erabilera Planeko edukiak zabaldu eta kudeaketa planeko helburuak behar bezala helarazi.
- Hizkuntz-irizpideen jarraipena hobetzeko sistema sortu.

- **Adierazle mailako helburuak**

**1.0.3.7 Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei**

**eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
80	14,4	100	18	20	3,6

**1.0.3.8 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte**

Langileek irizpideak zein diren argi izanik behar bezala bete ditzatela.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
92	22,08	100	24	8	1,94

**1.0.3.9 Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak**

Betetze-maila lankideek eurek ere ebaluatu ahal izan dezaten, euren lan jardunean integrazteko modua topatu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
96	11,52	100	12,52	4	1

**1.0.3.10 Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan**

Udalak ez ditu sustapen-ekintza gehiegi egin. Egin direnetan gehientsuenek parte hartu dute, baina prozesuak berak azaleratu du gehiagotan egitea eskertuko luketela. Beraz, sustapena hobetu eta parte-hartzea indartu, horiek lirateke urratsak.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
67	3,22	100	4,8	33	1,58

**1.0.3.11 Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.**

Lankideek hizkuntzaren inguruko kezka plazaratu ahal izateko harreman egokiari eutsi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	0	100	0	0	0

**1.0.4 arloa. HIZKUNTZA GAITASUNA**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa

<b>97.67</b>	<b>0.00</b>	<b>100.00</b>	<b>0.00</b>	<b>2.33</b>	<b>0.00</b>
--------------	-------------	---------------	-------------	-------------	-------------

- **Egoera**

Langileak gai dira euren funtzioak euskaraz ahoz zein idatziz behar bezala burutzeko. Hizkuntz eskakizuna egiaztatua du langileen % 93k. Ordezkarri politikoen mailak ere bermatzen du udal jarduna osoki euskaraz egitea.

- **Egindakoak**

Usurbilgo Udala derrigortasun indizetik gora dago hizkuntz eskakizunei dagokienez. Denera 83 lanpostuk dute hizkuntz eskakizuna ezarrita.

Bestalde, programa bidez egindako kontratazioetan ere lanpostuaren funtzioen araberrako betekizunak ezarri ditu Udalak.

- **Indarguneak**

Udaleko langile ia denek dute egiaztatua euren lanpostuari dagozkion eginkizunak euskaraz behar bezala betetzeko gutxieneko maila.

Derrigortasun-indizetik gora dira derrigortasun-indizea zehaztuta duten lanpostuak. Horri esker, euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea bermatzen du Udalak.

Akta, diktamen, erabaki... denak euskara hutsean erredaktatzen dira. Osoko Bilkuretako hizkuntza ere euskara da.

- **Zer hobetuak**

Langile eta arduradun politikoei lana euskaraz egiteko dauden erreminta eta aplikazioak ezagutzea komenigarria litzateke.

- **Helburu estrategikoak**

**-Hizkuntz eskakizunen betetze-maila % 100 izan dadin eginahalak egin.**

- Hizkuntz eskakizuna egiaztatzeko daukaten langileei erraztasunak eman maila hobetzeko.
- Hautaprobetan, derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuetan, probetako bat gutxienez euskaraz eginarazi.
- Ordezkaritza politikoak euskaldunak izan daitezen sustatu, eta gaitasunik ez duenari laguntza eskaini.

- **Adierazle mailako helburuak**

1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
		100	0	100	0	0	0

1.0.4.13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
		93	0	100	0	7	0

1.0.4.14	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
		%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
		100	0	100	0	0	0

## 1.0.6 arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
93,75	56,25	100	60	6,25	3,75

- **Egoera**

Udalak hizkuntz klausulak txertatzen ditu haren eskumen eta eraginpekoa alorretan: baimenak, dirulaguntzak, esleipenak, hitzarmenak... Dena den, haien transmisioa, zaintza eta jarraipena ez dira behar bezala egiten, eta, zenbaitetan, etena gertatzen da. Teknikari askok ez dakite, gainera, gai honi dagokionez euren rola zein den.

- **Egindakoak**

Hizkuntza-klausulak txertatzen dira dirulaguntza, hitzarmen edota baimenetan.

- **Indarguneak**

- Udalak barneratuta dauka haren eskumenerako esparruetan baldintza edo klausulak txertatu behar dituela eta tresna eraginkorra direla euskara normalizatzen laguntzeko.

- Herritarrak hartzaile direnean edo haiei zerbitzua emateko diren kontratazioetan xehetuta ematen dira betebeherrak.

- **Zer hobetuak**

- Sail bakoitzean badago baldintzon eredu edo estandarra, baina berrikusi egin behar dira, eta eraginkortasuna ahal beste indartu.

- Teknikari askok inertziaz txertatzen dituzte baldintzok, baina askotan ez dago argi zer den zehazki arautzen dutena. Jarraipena asko zailtzen du horrek.

- Aldundiko Kontratazio Zentraletik bideratzen diren kontratuen jarraipena egitea zailagoa da, eta urraketa asko bertan gertatzen dira.

- **Helburu estrategikoak**

**-Kontratu, dirulaguntza, baimen zein hitzarmenetako ereduak zehaztu.**

**-Jarraipen-sistema sortu, eta ardurak banatu.**

**-Beste administrazio eta erakundeekin elkarlana indartu, eragin biderkatzailea areagotzeko.**

- **Adierazle mailako helburuak**

**1.0.6.17**

**Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.**

		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
		100	9	100	9	0	0

**1.0.6.18 Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira**

		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
		100	6	100	6	0	0

**1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari**

Jarraipena sistematizatu, eta baldintzak betetzen ez direnerako neurriak aurreikusi.

		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
		75	20,25	100	27	25	6,75

**1.0.6.20 Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.**

Jarraipena doitzeko sistema bateratua sortu.

		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
		90	16,2	100	18	10	1,8

## 2. ARDATZA: ERABILERA

<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>
<b>100</b>	<b>700</b>	<b>94,41</b>	<b>660,90</b>	<b>5,59</b>	<b>39,90</b>

- **ERABILERRARAKO ERRONKAK**

- Hizkuntz irizpideak ezagutarazi eta bete.
- Euskara sortze-hizkuntza bakarra izan dadin urratsak ematen jarraitu.
- Euskarak lan- eta zerbitzu-hizkuntza izaten jarrai dezan barne-mailako akordioak lortu.
- Langileei euskara-maila hobetzeko eta euren lana errazteko baliabideak eskaini.
- Langileen kontzientzia eta motibazioa jorratzen jarraitu.

## 2.1 ZERBITZU-HIZKUNTZA

### 2.1.1 arloa. IRUDIA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
99,25	41,62	100	42	0,75	0,38

- **Egoera**

Erakundearen irudian euskara da nagusi. Urteetako lanaren poderioz, iruditeria osoa, hizkuntz paisaia, euskara hutsean, eta, izatekotan, ele bietan dago.

- **Egindakoak**

Euskarri guztietan dago bermatuta euskara. Ele biak erabili direnetan ere, euskara lehenetsita ageri da.

- **Indarguneak**

Udal jardunean bezala, udal irudian euskara da presentzia duen hizkuntza.

- **Zer hobetuak**

Hizkuntzen erabilera simetrikorako joerak arautu eta mugatu.

- **Helburu estrategikoak**

**-Irudiaren elementu guztietan euskarari lehenetasuna emateko pausoak ematen jarraitu.**

**-Irudiaren elementu guztietan euskara hutsezko eredia lehenetsi.**

- **Adierazle mailako helburuak**

**2.1.1.21**

**Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.**

Euskarak berea duen tokia galdu ez dezan eginahalak egin.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	8,4	100	8,4	0	0

**2.1.1.22**

**Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.**

Xede-taldearen arabera, euskara hutseko argitalpenak lehenetsi.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	8,4	100	8,4	0	0

**2.1.1.23**

**Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.**

Udal ordezkariak euskaraz egin dezaten baliabideak sortu eta euskarri osagarriak adostu.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	12,6	100	12,6	0	0

**2.1.1.24**

**Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.**

Erakundeak onartutako hizkuntz irizpideak bete.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
97	12,22	100	12,6	3	0,38

**2.1.2 arloa. HERRITARBEKIKO HARREMANAK**

<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>%</b>	<b>Puntuazioa</b>
<b>90,42</b>	<b>151,90</b>	<b>80</b>	<b>134,4</b>	<b>10,42</b>	<b>17,5</b>

- **Egoera**

Erabat euskaraz funtzionatzen du Udalak. Dena den, zenbaitetan irizpideak findu edo zehaztea falta da.

Oinarrizko Lanbide Heziketako zentroan, Hezkuntza Sailaren baitakoan, zerbitzua osorik euskaraz jaso ahal izatea ez da beti bermatzen.

- **Egindakoak**

Udal langileek euskaraz egiten dute lehen hitza, eta elkarrizketa gehienak hala burutzen dituzte. Idatziz ere euskara lehenesten da, beti. Herritarrei euskaraz helarazten zaizkie jakinarazpenak, eta gaztelaniaz nahi izatekotan itzulpena eskuratzeko aukera eman.

- **Indarguneak**

-Herritarrek bermatuta dute euskaraz artatuak izatea. Zerbitzu-hizkuntza euskara da.

-Langileek euskaraz egiten dute lehen hitza.

-Herritarrei begirako ikastaro ia guztiak egiten dira euskaraz.

- **Zer hobetuak**

-Herritarrei zuzendutako zenbait ikastaro zein hitzaldi ez dira euskaraz eskaintzen.

-Hizkuntz hautua egiterakoan, solaskidearen arrazaren edo bestelako ezaugarrien arabera aurreiritziek pisua dute oraindik.

- **Helburu estrategikoak**

**-Adostutako hizkuntz irizpideak bete**

**-Langile eta udal ordezkarien inplikazioa eta jarrera proaktiboa sustatu idatziz zein ahoz euskara berma dadin.**

- **Adierazle mailako helburuak**

**2.1.2.25**

**Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.**

Herritar orori euskaraz egin lehen hitza zein elkarrizketa edo jardunbiderako gonbita.

Hasiarako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
93	31,25	100	33,6	7	2,35

**2.1.2.26**

**Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.**

Hasiarako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	42	100	42	0	0

**2.1.2.27**

**Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.**

Hartzaile potentzialak nagusiki erdaldunak direnetan ere euskarak bere tokia izan dezan bermatu.

Hasiarako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
90	30,24	100	33,6	10	3,36

**2.1.2.28**

**Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.**

Euskaraz bidalitako agirietan itzulpena eskatzeko aukera erantsi.

Hasiarako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	25,2	100	25,2	0	0

**2.1.2.29**

**Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.**

Hasiarako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	0	100	0	0	0

### 2.1.2.30 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.

Euskaraz dakienak Udalarekin euskaraz egin dezan eragiten saiatu (errotuluak, lehen hitza...). Herriko egoera soziolinguistikoaren isla izan dadila, gutxienez.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
75	0	85	0	10	0

### 2.1.2.31 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.

Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak bete eta urtez urte euskaraz komunikatzen diren herritarren kopurua igo. Herriko egoera soziolinguistikoaren isla izan dadila, gutxienez.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
75	0	85	0	10	0

## 2.2 LAN-HIZKUNTZA

### 2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>98</b>	<b>144,06</b>	<b>100</b>	<b>147</b>	<b>2</b>	<b>2,94</b>

- **Egoera**

Erakunde barruko elkarrizketa-harreman formal zein informalak euskaraz egiten dituzte nagusiki.

- **Egindakoak**

Euskara lan hizkuntza izan dadin eginahalak egin ditu Udalak. Sortze-hizkuntza soilik euskara izan dadin beta eman die langileei, eta bigarren hizkuntza bat ere aintzat hartu behar izan denetan itzulpenak egiteko baliabideak eman.

- **Indarguneak**

- Langile guztiek dute euren lanpostuan euskaraz aritzeko gutxienerako gaitasuna.
- Langile denek daukate barneratuta euskara dela lan hizkuntza, eta hala jakinarazten zaie berriei ere.

- **Zer hobetuak**

- Zenbait elkarrizketa informal gaztelaniaz egiten dituzte udal langile batzuk.

- **Helburu estrategikoak**

**-Irizpideak zehaztu, langileen betebeharrak finkatu, eta horien aldeko jarrera sustatu.**

**-Administrazio prozedura guztiak euskaraz abia daitezkeen baliabideak eskaini.**

- **Adierazle mailako helburuak**

<b>2.2.1.32 Lan-bilerak euskaraz egiten dira.</b>		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
		100	29,4	100	29,4	0	0

---

<b>2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.</b>		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
		100	36,75	100	36,75	0	0

---

<b>2.2.1.34 Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.</b>		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>	
Hizkuntz	ohituretan eragiteko kanpaina eta mekanismoak martxan jarri. Kontzientzian eragin.	90	0	100	0	10	0

**2.2.1.35 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	29,4	100	29,4	0	0

**2.2.1.36 Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboen barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	22,05	100	22,05	0	0

**2.2.1.37 Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
98	21,61	100	22,05	2	0,44

**2.2.1.38 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.**

Finkatutako hizkuntz irizpideak bete.

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
100	7,35	100	7,35	0	0

**2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK**

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
<b>84,28</b>	<b>83,10</b>	<b>97,75</b>	<b>95,80</b>	<b>13,47</b>	<b>12,70</b>



- **Egoera**

Sektore publiko zein pribatuekiko harremanak euskaraz izaten dira nagusiki. Hala ere, ehunekoak nabarmen egiten du behera azken horien kasuan. Hautua, dena den, ez da Udalaren esku egoten, hartzailearen esku baizik. Administrazioan badira oraindik ere euskaraz aritu ahal izatea bermatzen ez duten Sailak (Justiziarena, kasu), eta enpresa-munduan badago oraindik zer urratua.

- **Egindakoak**

UEMAren bitartez bai alor pribatuan (banketxeak) zein publikoan (Gipuzkoako Foru Aldundia edota Eusko Jaurlaritza) euskara hutsean aritzeko eskubidearen aldarria egin izan da. Hautu hori berma dezaten jarraipena egiten du Euskara Sailak urraketak daudenetan dagokionarekin harremanetan jarrita. Teknikariek eurek ere galdegiten dute askotan.

- **Indarguneak**

Langileak jakitun dira euskaraz aritzeko mandatua egina diela Udalak, eta erakunde publiko-mailan behintzat hori bermatua behar dutela hartzailearen aldetik. Eremu pribatuan eragiteko hizkuntz klausulek jasotako bete dadin eskatzen dute, gutxienez.

- **Zer hobetuak**

Euskara bermatzen ez denetan zer egin edota nola jokatu gidalerroak eman.

- **Helburu estrategikoak**

**-Ezarritako hizkuntza irizpideak betetzea.**

**-Euskaraz ere aritu beharko lukeen erakundeak Udalarekin hala egiteko baliabideak jar ditzan protokoloa zehaztu.**

**-Erakundeen arteko harremanetan euskarak gero eta protagonismo handiagoa izan dezan eragin.**

- **Adierazle mailako helburuak**

**2.2.2.39 Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie**

<b>idatzizko komunikazioak.</b>						
		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>
Hezkuntza edota Justizian dauden hutsuneek euskaraz aritu ahal izatea galerazi ez dezaten dagokionari erantzun egokia eskatu, eta, behar balitz, hitzarmenak bideratu.	86	25,28	100	29,4	14	4,12

<b>2.2.2.40 Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.</b>						
		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>
Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta Euskal Herriko lurralde-esparruan kokatuta dauden beste administrazio publikoekin nahiz erakunde ofizialekin, euskara ofiziala den lurraldeetakoekin behintzat, euskara hutsezko harremanak bultzatzea. Betetze-mailaren jarraipena egitea.	100	39,2	100	39,2	0	0

<b>2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.</b>						
		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>
Baldintza/klausulak baliatu eta betearazi.	73	10,73	85	12,5	12	1,76

<b>2.2.2.42 Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.</b>						
		<b>Hasierako egoera</b>		<b>Aurreikuspena</b>		<b>Aldea</b>
Langileek eta arduradun politikoek ezarritako irizpideak betetzea eta erakunde pribatuetarako agirien kasuan euskara erabiltzea beti (jakinarazpenak, baimenak, dekretuak, gutunak...). Betetze-mailaren jarraipena egitea.	100	14,7	100	14,7	0	0

### 2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikuspena		Aldea	
%	Puntuazioa	%	Puntuazioa	%	Puntuazioa
90	66,15	95,50	70,20	5,50	4,05

- **Egoera**

Udalak ez du antolatzen prestakuntzarik, kanpoko eskaintzaren arabera eta beharizanen arabera eskaintzen dira ikastaroak, baina oro har, ez da kontuan hartzen hizkuntza.

Hizkuntza trebakuntzari dagokionez, langileek eta arduradun politikoek hileroko trebakuntza fitxa jasotzen dute, eta UEMAko trebakuntza ikastaroak on line nahiz aurrez aurre egiteko aukera dute.

- **Egindakoak**

Ikastaro denak gutxienez euskaraz egiteko aukera izan dadin eginahalak egiten ditu Udalak, bai bere bitartekoak baliatuz eta baita beste batzuek jota (esaterako, UEMA).

Udalak sustatutako ikastaro ia denak dira euskaraz.

- **Indarguneak**

Langileen lan hitzarmenean jasota dago ikastaroak euskaraz egiteko eskubidea. Berau bermatzen saiatzen da Udala, eta salbuespen dira euskaraz egin ezin diren formazio-saioak.

- **Zer hobetuak**

Langileek berriazko prestakuntza kanpo-eragileen bidez jasotzen dute, maiz. Horietako askok ez dute euskaraz aritzeko aukerarik ematen.

- **Helburu estrategikoak**

**-Langileek prestakuntza euskaraz jasotzeko hautua egin dezaten sustatu.**

**-Langileei eskaintzen zaien formazioa euskarazkoa izatea.**

- **Adierazle mailako helburuak**

### 2.2.3.43 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.

Udalak kanpo-eragileen esku uzten du askotan alor hau, eta haiek ez dute beti bermatzen euskaraz aritu ahal izatea. Egoera hori irauli.

